Xedapen honetan dagoen araupeketaren helburua etxebizitzak izateko eraikinen kalitatea hobetzea da. Araupeketa hori eraikitze-prozesuan esku hartzen duten eragileentzat zuzenduta dago bereziki. Beroriek egin eta aurkeztu behar dituzte burututako obrari buruzko agiri guztiak. Horregatik, bereziki obren zuzentzaile eta sustatzaileentzako da aipatu araupeketa.

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak, ERAILUR-ekiko lankidetzaz, sektorekoen eskura jarri du Eraikinari buruzko Liburua egiten laguntzen duen programa informatikoa.

Aplikazio informatiko honen bitartez Eraikinari buruzko Liburua bakoitzak egin ahal du urriaren 21eko 150/2003 Dekretuan ezarri diren eta 2003ko urriaren 22ko Aginduak formatuari buruz ekarri dituen eskaerekin bat etorritik.

Haren helburua eraikinari buruzko datu guztiak azkar eta ikusteko moduan sartzen joatea da, zertarako-eta datu horiekin Eraikinari buruzko Liburua gero argitaratu ahal izateko.

Jarraitu beharreko urratsak erraz-errazak dira; honakook ditugu:

- 1.- Eraikina ezagutzea.
- 2.- Eraikinaren eraikuntza-elementuak deskribatzea.
- 3.- Zehaztapen Teknikoei buruzko Agiriko datuak sartzea.
- 4.- Eraikinari buruzko datu guztiak osatuta, Eraikinari buruzko Liburua inprimatu edo agiri batera esportatzea, haren beharizanen arabera.




aurkibidea

1. ERAIKINARI buruzko LIBURUA egiteko tresna berria
2. Bilbaoko adierazpena: Segurtasuna eraikiz
3. Eraikal kalitatearen Europako X. astean
4. ERAIKAL deialdi berriko laguntzak, ebatzita
5. Proinland biltzarra
6. Hemeroteka
7. Itaun-ontzia

Pantaila nagusiko menuetik lehen aipatu ditugun Eraikinari buruzko Liburuko auke-ara guztietara sartzea dago.

Eraikina sortzeko zenbait datu sartu behar dira, hala nola, eraikinaren identifikazioa eta sustatzaileari, eraikitzaileari, proiektugileari, instalazioei, bermeei, kargei, lizentziei eta abarri buruzkoak.




Informazio hori programaren datutegian bildurik egongo da, datuak programarekin Eraikinari buruzko edozein Liburu idazteko erabili ahal izateko.

Eraikina sortu ondoren, berori osatzen duten elementu guztiak (zimendatzeak, egitura, fatxadak, zatiketak, instalazioak, gainaldeak eta estaldurak) zehaztu behar dira. Programaren barruan sartuz gero, erabiltzaileak bere elementuak sortu eta dagokien taldean sartu ahal ditu.

Eraikina sortu eta berorren elementuak zehaztu ostean, datu teknikoak zehaztu

behar dira, taldekatuta dauden eta honako taldeok osarazten dituztenak:

- Datu orokorrak
- Datu tekniko orokorrak
- Egitura
- Kanpoko itxitura bertikalak
- Kanpoko itxitura horizontalak
- Gainaldea
- Barrualdeko konpartimentazio horizontala
- Barrualdeko konpartimentazio bertikalak
- Instalazioak
- Bestelako instalazioak



Azkenik, programaren bitartez Eraikinari buruzko Liburu osoa edota Etxebizitzari buruzko Eskuliburua inprimatu eta programaren datutegiaren segurtasun-kopiak egin ahal dira.

ERAIKINARI BURUZKO LIBURUA OSATZEN DUTEN AGIRIAK

I.- Erregistro-koadernoak:

a) Hasierako datuak:

- 1.- Eraikina ezagutu eta eraikitzeari buruzko datuak:
 - a) Helbidea eta izena, hala denean, eta katastroko erreferentzi zenbakia.
 - b) Eraikitzeari, hasiera- eta bukaera-datei eta obrak hartzeari buruzko datuak.
 - c) Kokagune-planoa.
 - d) Fatxadaren argazkia.
- 2.- Eraikitze-prozesuan esku hartzen dutenen datuak:
 - a) Sustatzailea.
 - b) Proiektuaren egilea.
 - c) Obraren zuzendaritza eskuduna.
 - d) Eraikitzailea.
 - e) Industriari instalatzaileak.
 - f) Kontratariordeak.
 - g) Laborategiak kalitatea kontrolatzeko Erakundeak
- 3.- Lizentzi datuak, obra berriaren adierazpena eta eraikinaren lege-araubidea:
 - h) Lizentzia.
 - i) Obra berriaren adierazpena.
 - j) Jabetza-araubideak.

- k) Ondasunen gaineko benetako kargak.
- l) Atzemaite-unitateen zerrenda.

4.- Bermeei buruzko datuak:

- a) Sustatzaileak emandakoei buruzkoak.
- b) Instalazioen berme zehatzei buruzkoak.

5.- Oharrak

b) Gertakarien erregistroa:

- 1.- Sustatzaileak erosleari Eraikinari buruzko Liburua emateko ekitaldia.
- 2.- Jabetzaren titulartasuneko aldaketak.
- 3.- Eraikinaren berrikuntzak eta birgaikeak eta destino-aldaketak.
- 4.- Eraikinari emandako laguntzak eta onurak.
- 5.- Kontraturiko aseguruak.
- 6.- Hasierako datuen aldarazpenak.
- 7.- Jarraipen-ikuskapenak erregistratzea.

c) Eraikina artatu eta konpontzeko eragiketen erregistroa:

- 1.- Hura artatzeko eta konpontzeko eragiketa guztien xehetasunak.
- 2.- Eraikinaren Ikuskapen Teknikoak (EITak).

II.- Zehaztapen teknikoei buruzko agiria (zta):

a) Obraren Bukaerako proiektua (As Built):

- 1.- Oin, Gorako eta Sekzioen planoak, gutxienez 1/100 eskalakoak.
- 2.- Azterketa geoteknikoak.
- 3.- Zimenduen eta Egituraren planoak, gutxienez 1/100 eskalakoak, eta eraikitze-xehetasunak; kargen egoera-orria, zimendatze mota eta lurreko lan-tentsioa, kalkulatzeko kontutan hartuak.
- 4.- Segurtasun sistema eta instalazioen eskemak.
- 5.- Eraikina eraikitzeo erabiliriko material eta konponbide nagusiak deskribatzea, eta, hala denean, Kalitatearen Kontrolaren Ziurtagiriak.

b) Erabilpen eta artapenerako jarraibideak:

- 1.- Teknikari eskudunak idatzita, amankomuneko eraikitze elementuak eta tipologiak erabili eta artatzeko jarraibide orokorrak eta den eraikinarentzako jarraibide zehatzak bereiztea izango da.
- 2.- Eraikinaren osagai bereziak nola erabili eta nola ibiltzen diren adieraztea, eta artapen eta berrikuspenerako eragiketak eta berauen aldizkakotasuna.

- 3.- Berriaz agerrarazi beharko da ezen okerreko erabilerekin eta aipaturiko artapen-eragiketak ez burutzeak bermeak galtzea ekarri ahalko dutela.

c) Larrialdi edo ezbeharretako jarraibideak:

- 1.- Gutxienez, honako kasuok hartuko dituzte barnean: sutea, uren ihesa, leherketa, igogailuetan harrapatutako geratzea, atmosfera-jatorrikoak, egitura euslearen mugimendu handiak, elementuak kanpoaldera erortzea eta higiezinarren barruko istripuak.
- 2.- Kontrol-lokalei, giltzetarako armairuei, jarduketa-elementuei, instalazioak kontrolatzeko panelen eskemei eta abarri buruzko informazio grafiko nahikoa izango da.

d) Formatua:

ZTako dokumentazioak etiketen bitartez identifikaturiko UNE A4 tamainako kutxetan egon beharko du.

III.- Agiritegia:

a) Artxiboa:

- 1.- Agiriak UNE A4 tamainako artxiboan artxibatuko dira eta bertan azalduko dira agiriak artxibatu eta antolatzen jarraibideak.
- 2.- Agiritegiko agiriak jatorrizkoak edo beraien kopia onartuak izango dira.

IV.- Etxebizitzari buruzko eskuliburua:

a) Banakako eskuliburuak:

- 1.- Etxebizitzaren jabeek jasoko dituzten agiriak dira, eta honakook izango dituzte:
 - Etxebizitzaren erabilera eta ibilerari buruzko eskuliburua eta hura artatzeko eta berrikusteko derrigorrezko eragiketak eta hura ondo artatzeko gomendioak.
 - Etxebizitzetako banakako ekipoen ibilerari buruzko eskuliburuak eta bermeak.
 - 1/50 eskalako oin-planoa.
 - Batzuek bakarrik erabili ahal dituzten elementuen (garajea, trastelekuak eta abar) 1/100 eskalako planoak. Etxebizitza bakoitzari dagozkionak adierazi behar dira.
- 2.- Banakako agiriok Eraikinari buruzko Liburuko gainerako agirien eranskin lokabeak dira.

2. Bilbaoko adierazpena: segurtasuna eraikiz

Eraikintza Europako industri sektorerik garrantzitsuenetakoa da, baina, tamalez, laneko segurtasun eta osasun mailarik txikienetakoa du. Urtero, Europar Batasunean, 1.200 lagun inguru hiltzen dira eraikintzako laneko istripuen ondorioz, eta hiruna baja-egun ekartzen duten 800.000 ezbehar baino gehiago gertatzen dira. Ekoizkortasun-galerako, osasuneko eta bestelako gastuetako ekonomi kostua urteko 75.000 milioi eurokoa izan da, zenbatetsirikoaren arabera, hau da, batez beste, Europar Batasuneko hiritarrek 200 eurokoa, istripuon ondorioek gizartean duten eragina kontutan hartu gabe.

Hau arriskurik handiena duen sektoreetako delako kontutan hartuta, Europar Batasunak 2002 eta 2006 bitarteko epealdirako laneko segurtasunari eta osasunari buruz finkatu duen estrategiari jarraiki, sektore honek laneko istripuak eta gaixotasunak eten gabe gutxiagotzeko ahaleginak egin behar ditu. Helburu hori lortzeko, sektorearen barruko jardueretan parte hartzen duten protagonista guztiak egin behar dituzte, halaber, ahaleginak.

Horrexegatik eskaini zitzaion Laneko Segurtasun eta Osasunerako Europako Astea eraikintza sektoreari 2004an. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Europako Agentziak eta Europar Batasuneko Holandako Presidentetzak batera antolatuta, kanpaina sektorea zihoakienei zegoen potentziala ezagutzen eta lan-ingurune seguru, osasungarri eta ekoizkorrago sortzen laguntzeko diseinatu zen.

2004ko azaroaren 22an, **Eraikintzako Segurtasunerako Europako Gailurra** zela eta, Bilbaon "adierazpen historikoa" sinatu zuten Europar Batasuneko eraikintza sektoreko erakunderik garrantzitsuenek. Bertan konpromisoa hartu zuten jarduera honetan "segurtasun eta osasun mailak hobetzeko **neurriak** hartzeko".

Bilbaoko Adierazpenak Europako eraikintza sektorean segurtasun eta osasun mailak hobetzeko bost neurri nagusi zehazturik ditu, honakook:

- **Ondasunak eta zerbitzuak erostea – segurtasuna eraikiz**

Segurtasunari eta osasunari buruzko arauak kontratu-politikan sartzea eta, ildo horretatik, ondasun eta zerbitzuak erosteko gidalerroak oinarri hartzea.

- **Hori praktikan jartzea – legeak hobeto betearaztea**

Obren ikuskapenak eta beste metodo batzuk baliatzea, segurtasunari eta osasunari buruzko legeak gero eta enpresa gehiagok bete dituzten eta haiek benetan aplikatzea berma dadin.

- **Gidalerro/Gidaliburuak – Legeak bete-tzeko eginera onak konpartitzea**

Gizarte-eragileekiko lankidetzan, enpresei, enpresa txiki eta ertainei (ETEEi) bereziki, legeak betetzen eta, horrela, egunera onak elkarri trukatzeko laguntzen dieten gidalerroak egitea.

- **Eraikitze-lan seguru eta osasungarria diseinatzea**

Eraikitze-proiektuen faseak diseinatu eta planifikatzerakoan segurtasuna eta osasuna kontutan hartzen direla bermatzea.

- **Gizarte-eragileen konpromisoaren bitartez segurtasun eta osasun emaitzak hobetzea**

Segurtasun eta osasun maila altuagoak lortzea, neurri hauen bitartez: Gizarte elkarrikeria, prestakuntza, ezbeharrak gutxiagotzea, gizarte-eragileen arteko proiektu eta obra mailako lankidetzak, lanari buruzko txostenak egitea, ETEei beren legezko betebeharrak eta erantzukizunei buruzko informazioa ematea...

Bilbaoko Adierazpenari buruz berriro ari-tuko dira adituak 2006ko ekaineko gailur-rean. Bertan sinatzaileek ekimen honen bitartez lortutako aurrerapenen berri jakinaraziko dute.

Eraikintzako Segurtasunari buruzko Foroa sortuko da jarraipen-gailurra prestatzeko, erakunde sinatzaileek hartutako ekimenei buruzko informazioa elkarri trukatzeko eta adierazpenaren aplikazioari begirako baterako ekintza eta lankidetzak sustatzeko.

Informazio zabalagorik nahi izanez gero, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Europako Agentziaren web orrialdera jo dezakezu: <http://agency.osha.eu.int>.



3. Eraikal kalitatearen Europako X. asteen

Kalitatearen Europako Astearen hamargarren edizioak, Kalitatea dibertsitatearen bitartez leloa izanik, 2004ko azaroaren 8tik 19ra bitartean garatu zen. Bere helburua esperientziak trukatzeko eta kalitateak erakundeen lehiakortasunean duen garrantzia erakustea izan zen.

10 egunotan antolaturiko 60 ekitaldietan parte hartu zuen Eraikalek "Gasteizen 2004ko azaroaren 12an" Eraikintza Sektorea, etengabe hobetu nahirik" lelopean egindako jardunaldia antolaturik.





EFQM Bikaintasun Eredua ezartzeko zenbait esperientzia praktikoa aurkeztu ziren, sektoreko tipologia ezberdinetako enpresek garatuak. Beraiek aurkeztu ziren jardunaldi hori sektorean eredua ezartzea bultzatzeko zen, hori egitea Eraikal ekimenak eten gabe hobetzeko sustaturiko lerro nagusietakoa baita.

Ekitaldiaren sarreran, alde batetik, Javier Dean Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuordea eta, bestetik, SEA-UNECAko Enrique González Sal aritu ziren. Lehenengoak Herri Administrazioak Eraikal Programaren bitartez eraikintza sektorearen Kalitatearekin egiten ziharduen lana

azaldu zuen; eta bigarrenak sektorearen gai horri buruzko egungo egoera aurkeztu.

Halaber, guztiek (50 pertsona baino gehiago bertaratu ziren) OPE Consultores-eko Manuel Olariagari entzuteko aukera izan zuten, sektorean EFQM Eredua aplikatzeari buruzko ikusmolde teoriko interesgarria ekarri zuen, eta baita gai honi buruz ikastea ere, hiru enpresaren ezarpen praktikoko esperientzien bitartez; hona hemen hiru enpresa horiek: VISESA, CONSTRUCCIONES ZABALANDI, S.L. eta CONSTRUCCIONES SUKIA ERAIKUNTZAK, S.A., Eraikalen baitan egun garatzen aritzen diren horrelako proiektu ugarien laginaren zatiak.

4. ERAIKAL deialdi berriko laguntzak, ebatzita

Etxebizitza eta Gizarte Arazoetarako Sailak Eraikal Programako (Seigarren Eraikal Luzatua) 2004ko deialdira aurkeztutako proposamenetarako laguntzak ebatzi berri ditu, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2004ko maiatzaren 12ko Aginduaren bitartez deituak eta Euskal Autonomia Erkidegoan finkaturik dauden egoitza-eraikintzako sektoreko enpresetan kalitatea kudeatzeko sistemak ezartzea sustatzekoak.

Deialdi honen barruan esleituriko 800.000 euroei onura 14 eragilek aterako diete. Haiek proposaturiko proiektu ugarien artean banatuko dira.

Eraikalen lan egiten izan duten erakundeentzako partaidetzari eutsi zaio, eta gainera, beste lau eragile erantsi zaizkio programari. Hori aipatu behar da; izan ere, oso ondo etorriko zaie haiek ordezkatzeko dituzten taldeei, eta, horren ondorioz, sektore osoari. Haiek honakook ditugu: AFONVI (Bizkaiko Iturgintza, Gas eta Berokuntza Enpresen eta Antzekoen Elkarte), APAG (Gipuzkoako Igeltserotzako Ugazaben Elkarte), AROTZGI (Gipuzkoako Zurginen Ugazaben Elkarte) eta ERAILUR (Bizkaiko Eraikintzaren Batzordea).

Laburpen gisa, jarraian aurkeztuko ditugu deialdi berri honetan onetsiriko proiektuak:

Erakundea Proiektuak

- | | | | |
|----------------|--|----------------|---|
| ADC | <ul style="list-style-type: none"> Eraikintzako gremioen kalitatearen kudeaketa hobetzea: LAP delakoarekin batera Kalitatea kudeatzeko sistema ezarri eta K21 ziurtagiria lortzea: 20 enpresa. ADCn EFQM eredua ezartzea. | ASCovi | <ul style="list-style-type: none"> Kalitatea, Ingurumena edo/eta Laneko Arriskuak Prebenitzea (LAP) kudeatzeko sistemak ezartzea, hurrenez hurren ISO 9001:2000, ISO 14001 eta OHSAS 18001 arauetan oinarrituak: 20 enpresa. |
| AFONVI | <ul style="list-style-type: none"> Gremioko 3 enpresatan K-21 ziurtapenaren 2. Maila ezartzeko ereduak proba. Kalitateari buruzko prestakuntza-ikastaroak, jardunaldiak eta mahainguruak egitea. | COATBI | <ul style="list-style-type: none"> ISO 9001:2000 araua ezartzea: 9 enpresa. |
| APAG | <ul style="list-style-type: none"> K21 Kalitatea kudeatzeko ereduak prestakuntza. Gipuzkoako igeltserotzako mikroenpresetako hobekuntza etengabea. | COATGI | <ul style="list-style-type: none"> Teknikariak eraikitze-obretako segurtasun- eta osasun-koordinatzailearen lanetan gaitzeko prestakuntza-ekintzak. |
| AROTZGI | <ul style="list-style-type: none"> Mikroentez LAP kudeatzeko sistema argitaratzea. Mikroetei egokituriko LAPko sistema ezartzea: 25 enpresa. Mikroetei egokituriko Ingurumen-kudeaketarako sistema ezartzeko ereduak proba: 5 enpresa. | COAVN | <ul style="list-style-type: none"> ISO 9001:2000 araua ezartzea: 7 estudio. Barneko auditoretzetako prestakuntza Ingurumena eta Kalitatea osorik kudeatzeko den eta ISO 14001 arauan oinarriturik dagoen sistema ezartzea. |
| ASCONGI | <ul style="list-style-type: none"> ISO 9001:2000 araua ezartzea: 5 enpresa. Enpresetan EFQM eredua ezartzea. "Eraikintza sektorearentzako ingurumenari buruzko legeen bilatzailea" eguneratzea. Eraikintzako edozein eteri egokitu ahal den ereduak Euskarritasunari buruzko Memoria garatzea. | ERAILUR | <ul style="list-style-type: none"> Hitzaldi-zikloa: "Eraikintzako ingurumena eta euskarritasuna". "Etxebizitza erabili eta artatzeari buruzko Eskuliburua" editatu eta banatzea. |
| | | ITURGI | <ul style="list-style-type: none"> Ezarpenerako eta ISO 9001:2000 arauaren araberako ziurtapenerako Trakzio-proiektua: 6 enpresa. Laneko segurtasunari buruzko legeak zabaltzeko mintegiak. ITURGI n EFQM eredua ezartzea. |
| | | LABEIN | <ul style="list-style-type: none"> Proiektuen kontrola eta jarraipena. Eraikarte – Zaintza teknologikoa. Sustatu eta zabaltzeko jarduerak. |

- Kontratarien ebaluazioetako Kalitate eta Euskarritasun irizpideak.
- Eraikintza sektorearen enpresa kudeaketako beharrezan bilakara aztertzea.

UNECA

- Laborategietan kalitatea kudeatzeko sistema ezartzea, ISO 17025:2000 arauarekin bat datorrena.
- Eraikintza sektorean Hondakinak kudeatzeari buruzko Gidaliburua garatu, argitaratu eta zabaltzea.
- LAP kudeatzea ezarri eta ondo sartzeko plana.

VISESA

- Kalitatea, Ingurumena eta Laneko Arriskuak Prebenitzea osorik kudeatzeko sistema

ezartzeko Trakzio-proiektua: 5 arkitektura-estudio.

Adierazi behar denez, gai askotarikoak jorratu dira deialdi berri honetan hartutako proiektuetan. Haien artean honakook nabarmendu ahal dira: alde batetik, kalitateari eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko gaietan prestatu eta beroriek gogora ekartzekoak; eta bestetik, sektore osoari hainbat alderdi hobetzeko bere bidea errazten dioten "tresna" emateari begirakoak. Era berean, kudeaketa-sistemak ezartzearen gaineko proiekturik ohi-koenak kontutan hartzekoak dira.

ERAIKAL 6 Luzatuan parte hartzen duten askotariko proiektu ugariak argi uzten denez, eraikintza sektoreko enpresetan

funts eta ezinbestekoak diren gaietan bikaintasunerantz eta lehiakortasunerantz aurrera egin beharra dago.



5. Proinland biltzarra



SPRILUR Euskadiko Industri Lurzorua eta Eraikuntzak sustatzeko Sozietateak heldu den otsailaren 23an eta 24an 2005eko Proinland Biltzarra egingo du, Industri Lurzorua sustatu eta kudeatzeari begirako 1. Topaketa.

Biltzarrean, besteak beste, honako gaiak jorratuko dira: industri azpiegiturak garatzea, lurzorua kudeatzeko ereduak, lurraldearen plangintza eta antolamendua, ekonomi jarduerak higiezin

azpiegiturak kudeatzea...

Topaketan parte hartuko dute eremu guztietako aditu gailenek. Beraien artean Joseph Stiglitz aipa liteke, Ekonomiako Nobel Saria jasotakoa.

Hitzaldiak goizez emango dituzte Guggenheim Museoko Auditorioan. Mahainguruak, aldiz, arratsaldean izango dira Domine hoteleko aretoetan.

Informazio zabalagorik nahi izanez gero, www.proinland.org y www.sprilur.es

2005.02.23 EGITARAUA

Txostenak

- 1) "Industria-azpiegituren garapena, sustapenerako politika publikoa den aldetik"
Txostengilea: Jon Azua. e-innovating-lab-eko Burua.
- 2) "Lurraldearen Plangintza eta Antolamenduaren helburua, eta Industria-azpiegituren garapenean duen eragina"
Txostengilea: Alfonso Vergara. Arkitektoa. Taller de Ideas taldeko zuzendaria.
- 3) "Euskadin industria-azpiegituren garapena baldintzatzen duten elementuak"
Txostengilea: Marisol Esteban. Ekonomia Aplikatuko Katedratikoa, EHUko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea.
- 4) "Nazioarteko esperientzia, industria-azpiegituren kudeaketa eta sustapenean"
Txostengileak: Europako Batasuneko Funtzionarioa

Mahainguruak

- 1) "Lurzorua kudeaketako ereduak buruzko hainbat esperientzia"
Moderatzailea: Aitor Cobanera. SPRILUR-eko Burua.
Proposatutako partehartzaileak:
1.a: INSTITUT CATALÀ DEL SOL
2.a: INBISA
- 2) "Erakunde arteko lankidetzak, lurzoruen kudeaketako politikan: politika orokorrak eta sektorekoak"
Moderatzailea: Abel Muniategi. Lurraldearen Antolamendu eta Biodibertsitateko Sailburuordea
Partehartzaileak: Alfonso Vergara, Jon Azua.

2005.02.24 EGITARAUA

Txostenak

- 1) "Lurzorua kudeaketako eredu berriak: Erabilera edo kontsumoa"
Txostengilea: Jabetza Erregistroko Erregistroztailea.
- 2) "Industria-lurzorua: eremuak kategorizatzea"
Txostengilea: Alejandro Zeara Polo. Arkitektoa, United Architects-eko kidea.
- 3) "Enpresaburuarentzat on al da industriarako higiezin azpiegituraren arloko politika publikoa?"
Txostengilea: Ricardo Benedí. Elecqui Taldeko Burua
- 4) "Garapen iraunkorra, jarduerak ekonomikoetarako higiezin azpiegituren kudeaketan"
Txostengilea: Joseph Stiglitz. 2001eko Ekonomiako Nobel Sariduna.

Mahainguruak

- 1) "Industria-azpiegituren garapena baldintzatzen duten eragileak eta benetako egoerak"
Moderatzailea: Carmen Muñoz. EHUko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko Dekanoa.
Partehartzaileak: Alejandro Zeara Polo, Marisol Esteban eta Joseph Stiglitz.
- 2) "Enpresaburuak lurzorua kudeaketa publikoan aurkitzen dituzten enpresa-espereziak eta eragile on nahiz txarrak"
Moderatzailea: Iñigo Ocariz. Ekonomiarrien Euskal Elkargoko Lehendakaria.
Partehartzaileak: José Martín Echeverría, Adegiko Lehendakaria eta Ricardo Benedí, Elecqui taldeko Lehendakaria.

6. Hemeroteka

Eusteko moduko arkitekturaren "oscarrak"

Trasluz eraikina aukeratu dute Etxebizitzaren Ministerioak eta Arkitekto Elkargoen Kontseilu Nagusiak Estatua Eusteko Moduko Eraikintzari buruzko Nazioarteko Konferentzian ordezkatzeko. Berori datorren urteko irailean egingo da Tokion, Green Building Challenge-k (GBCK) eta Eraikuntzak eta Eraikintza ikertu eta garatzeko Nazioarteko Kontseiluak(CIBek) antolatuta.



Eraikin bioklimatiko eta modular hau Emilio Miguel Mitre valladolidtar eta Carlos Expósito Mora madrildar arkitektoek diseinatu dute. Harekin batera, beste hiru eraikinek –Gener Energia Berriztakorren Nazio Zentroaren Nafarroako Sarrigurengo egoitza berriak, Bartzelonako Zabaluneko eraikin egoitzanitzak eta etxebizitzak eta merkataritza-lokalak izateko Madrilgo San Cristobalگو bi eraikinek– Green Building Challengek ematen duen sarietakoren bat eskuratzea dute. Hori da eremu honetako nazioarteko proiekturik handinahiena, eta aurkezturiko kandidatura guztiak ebaluatzeaz arduratuko da.

Estatuko hautaketa-batzordeak nabarmendu duenez, lau eraikinak "gizarteak eusteko moduko eraikuntzaren eta ener-

gi eraginkortasunaren arloan eskatutako egungo eskaeren aurreko erantzun-ereduak" dira. Horrek "adibidetasuna" ematen die gainera.

Eta Tokioko espainiar pabilioia osatzen duten gainerako hamalau proposamenean iritsitako "goi maila" zoriondu da, Bartzelonako Adierazpenean jasotako abiaburuak praktikara eramango dituztelako. Adierazpen hori 2003an hartu zuten arkitektoen lanbide elkargoek ingurumena eta eusteko moduko garapena errespetatzen duten konponbide arkitektoniko globalak hartzea sustatzeko. Konponbideotan parte hartu behar dute arkitektoek, eraikuntzak eta bertako profesionalak eta hiritar guztiak.

Arkitektura bioklimatikoaren bitartez ahalik eta energi eragingarritasun handiena lortu gura da eta barneko erosotasun mailarik handiena eman. Hori lortzeko, ahalik eta ondoen erabili behar da kanpoko klima barrukoaren onerako: kanpoko beroa hartu edo baztertu, bildu eta banatu behar da.

Iturria: Construnario (2004/10/15)

Arkitektoek eraikinen energi ziurtapena eskatzen dute

Estatuko Arkitektoen Elkargoen Kontseiluko burua den Carlos Hernández Pezzi jaunak eraikinen energi ziurtapenerako sistema ezartzea eskatu zuen, zertarako eta baliabide naturalak "orokorrean zarrasteltze"aren eta karbono-dioxidoaren emisio lausotuen arazo bikoitzari aurre egiteko. Gas hori berotegi-efektudun gas nagusia da.

Ingurumenari buruzko Nazio Biltzarraren markoan (CONAMArenean), Hernández Pezzik prentsaurrekoan gogora ekarri du ezen urtero Estatuan milioi erdi etxebizitzak inguru eraikitzen direla. Horrek dakarrenez, sektorea kontsumituriko baliabideen %50en eta sortutako hondakinen %40-50en erantzulea da egun.



Hark azaldutakoaren arabera, bai eraikitzeke bai mantentzeko obretan, ur-kontsumoa "mugagabea da", birziklapenportzentajeak oso txikiak dira, eskonbro asko eta asko sortzen dira eta horrek guztiak zerikusia du alojer-tasa txikiarekin ere. Adibiderik esanguratsuenetakoa da aire egokituarena. Teknologia horri dagokionez, Espainia Europako kontsumitzaile nagusia da.

Hernández Pezzik adierazitakoaren arabera, gainera, ingurumeneko kalitate-politika horiek ez dute oso garestitzen etxebizitzaren prezioa: zenbatetsiriko gaitzatuak bukaerako prezioaren %2 eta %5 bitartekoak dira eta "epe laburrera" aurreztu ahaliko da.

"Badakigu zenbat kostatzen den eraikinen artapena ez kontrolatzea, %87ko gaitzatu baitu", esan zuen. Berak adierazirikoa- ren arabera, edozein kasutan, etxebizitzaren prezioa oso altua da, gutxieneko ingurumen-baldintzarik bete gabe.

Iturria: Europa Press (2004/11/25)

Itaun postontzia



eraikal@ej-gv.es

"ERAIKAL BERRIAK" informazio-aldizkariak postaren bidez jaso nahi baduzu zure eskaera itaun-ontziaren bidez "eraikal@ej-gv.es"-era Hartzaile, Enpresa eta Helbidea adierazten.